

artikulu nabarmenak
artículos destacados



maiatza/mayo



RODRÍGUEZ MARTÍNEZ, Carmen: Mercantilización de la educación domesticación de la sociedad. *Cuadernos de pedagogía*, 2014ko martxo, 445. zk., 54-57. orr.

Hezkuntzak ezagutzak eskuraarazten ditu, prestakuntzaren bidez. Ikasleak merkatuek sortutako lan-eskaintzara egokitzeko salgai bilakatu da ezagutza hori, Europako araudiek eta proposamenek lagunduta. Ekonomia gizarteari gailendu zaio, eta, ideologia merkantilista eta utilitarista txertatuz, eskola lehiakortasuna pizten duen konplize bilakatu du, gazteak malgu eta helduak kontzientziarik ez kritikarako gaitasunik gabeko subjektu bihurtu dituena. Beldurra eta krisia nagusi diren testuinguru honetan, egoera horren ondorioz, pertsonak euren egoeraren errudun sentitzen dira, ez dute protestarik egiten eta, areago, duintasuna ere galdu egiten dute



LÓPEZ GARZÓN, Juan Carlos: Si quieren y pueden: claves para la atención al alumnado más capaz. *Aula de Secundaria*, 7. zk., 11-15. orr.

Hezkuntzaren arloko leheen helburua ikasleen gaitasunak guztiz garatzea da. Gaitasun handiko ikasleen kasuan, borondatez lor daiteke hori, klaseko testuinguruan zazpi gako edo neurri aplikatuta. Honako hauek azpimarratzekoak dira: ikasleek ataza bereiziaz aukeratzea eta metodologia erakargarriak sartzea. Lehenengoan, ikasleak ataza bat edo gehiago aukeratzen du, eta horiek betetzeko konpromisoa hartzen du, kontratu bidez. Bigarreanean, flipped classroom deituan, irakasleak aktiboki lan egiteko aukera du, ikasleak klaseak eskolaz kanpoko orduetan jasotzen dituelako, multimedia-baliabideen bitartez



GONZÁLEZ GARCÍA, Segundo. Juventud, desempleo y precariedad laboral. La red como espacio para la construcción de alternativas. *Revista de Estudios de Juventud*, 103. zk., 2013ko abendua, 161. or.

Enpleguaren eskasiak gazteak lehiara eta lan-modu prekarioak onartzera bultzatzen ditu. Horren arrazoia, besteak beste, globalizazio neoliberal da, lan-merkatuari malgutasuna, segmentazioa eta mutazioa ekarri diona. Sindikatuek ez dituzte gazteak behar bezala babestu, eta langile ez prekarioak lehenetsi egin dituzte. Hori dela-eta, EuroMayDay, Juventud Sin Futuro edo Oficina Precaria bezalako esperientzien inguruan bistaritzen eta antolatzen hasi dira gazteak. Ekimenok web 2.0 baliabideak erabiltzen dituzte elkarren artean komunikatzeko eta, besteak beste, langabeziarekin lotutako eskubideak edo Oinarrizko Errenta Unibertsala aldarrikatzeko

PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA
KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA